

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Dolores Redondo idazleak Baztanek dituen xarma eta misterioak azaldu ditu Fitur azokan

Horrez gain, Nafarroa zinearen lurralde gisa sustatzeko, Plazaola Natur Bidea eta Nafarroako ibaietan arrantza egiteko proposamenak ere aurkeztu dira.

Miércoles, 22 de enero de 2014

Dolores Redondo idazleak, gaur, 2014ko FITUR Turismoaren Nazioarteko Azokaren lehen egunean, Baztanen xarma eta misterioak azalduko ditu, hura izan baita idatzitako trilogiaren lehen bi liburuen agertokia: "El guardián invisible" eta "Legado en los huesos".

Idazleak Baztan bere trilogiaren agertoki bihurtzeko eta leku hori inspirazioa hartzeko hautatu izanaren arrazoiak azalduko ditu. Baztango paisaia berde eta idilikoari buruzko hitzaldiarekin batera Reyno de Navarra marka turistikoaren eskutik egindako bideoa ikusi ahal izango da. Bertan, idazlearen txokorik gogokoenak agertuko dira.

Redondok aitortu du Baztanek erakarri egiten duela. "Nik ez nuen Baztan hautatu, berak hautatu ninduen". Halaber, ingurua ezagutzera hurbiltzera gonbidatu du jendea, paisaiak eta xarmaz beteriko txokoek liluratuta utziko dituztelako.

Carlos Erce Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusia izan du ondoan ekitaldian, eta esan du Baztan Nafarroako naturaren aberastasunaren adibidea dela eta bisitariengan zirrara sortzen duela.

Zalantzarik gabe, literatura betidanik izan da bidaiatzeko bitarteko ahaltsua, eta trilogiako lehen bi eleberrien arrakastari esker, Baztanen ezagutza modu ikaragarian hedatu da mundura. Eskualdea literaturari loturiko helmuga bihurtu da, eta mundu osoko irakurleak eta ingurua ezagutzeko interesa dutenak Elizondo bisitatzera hurbildu dira (Baztanen herri nagusia) Redondoren eleberriek agertzen dituzten tokiak ezagutzeko. Fenomenoa are handiagoa izango da bertsio zinematografikoa plazaratzen denean, izan ere, Peter Nadermann "Millenium" sagaren ekoizleak eskubideak eskuratu ditu. Nadermannek Amaia Salazar hilketen inspektoreak Baztanen dituen abendurak kontatuko dituen pelikula ekoitziko du.



Carlos Erce eta Dolores Redondo, Fitur azokako Nafarroaren stand-ean.

Pelikuletako

agertokiak

Baztani buruzko pelikula ez da izango Nafarroan filmatzen den bakarra. Foru Komunitatea hainbat pelikulatarako agertokia izan da azken urteetan. Estatuko pelikulei dagokienez, Baztan bera edo Zugarramurdiko leizeak are ezagunagoak egin dira "Baztan" edo "Las Brujas de Zugarramurdi" bezalako pelikulei esker. Azkena Alex de la Iglesia bilbotar errealizadoreak egindako da.



Aurkezpenera hurbildu den jendea.

Zinemaren magiari esker, Errege Bardeetako basamortu itxurako paisaia Estatu Batuen eta Mexikoren arteko mugako inguru bihurtu zen Riddley Scott britainiarren pelikula berrian.

Horren harira, Endo Comunicación enpresak aurkezpen bat egingo du Fitur azokan "Navarra de Cine, un escenario de película en cada rincón" izeneko (Zinea Nafarroan, pelikuletako agertokiak txoko guztietan). Endo Comunicación enpresa Foru Komunitateko hainbat tokitan egindako film laburren lehiaketaren bultzatzailea da. 2013an hasi ziren egiten eta aurtengo urterako ere antolatu da.

Barazkien gozamena

Barazkiak izango dira "Reyno de Navarra" marka turistikoaren stand-eko elementu nagusia lehen ordutik hasita, hainbat formatutan, baita kosmetikari lotuta ere. Hala, asteazkenetik ostiralera, 11:00etatik 13:00etara, zainzuri, pikillo piperren, orburuen, borrajen eta Nafarroako jatorri-deiturako olioaren esentziekin egindako aurpegi- eta gorputz-kremak aurkeztuko dira. Produktuek azalerako onuragarriak diren propietateak dituzte, goi-mailako kosmetika eta kalitatekoak dira eta, gaur egun, lasaitzeko eta spa-zentroetan eta Iruñeko Rodero jatetxean bertan banatzen dira. INTIA eta Reyno Gourmet Nafarroako kalitate-markak esku hartu dute ekimen horretan, Koldo Rodero sukaldariarekin (Michelin izan bat du) eta Ultzamako Aurum Cosmetic laborategiarekin batera.

Gaur, 13:30ean, MYVEG proiektua ere aurkeztuko da, barazki-plateren sorta berri bat. Esperientzia gastronomiko osasungarriaz gozatzera animatzen duen ekimena da. MYVEG David Yárnoz, Íñigo Orla (Iruñeko Melbourne jatetxeko sukaldari nagusia) eta Ion Erro buru dituen ikerketa-proiektu baten emaitza da. Barazki freskoak baratzetik mahaira eramatean datza, baita sasoiz kanpoko barazkiak ere.

Arrantza Nafarroako ibaietan eta Plazaola Natur Bidea

"Disfruta la pesca en los ríos navarros" (Gozatu arrantzaz Nafarroako ibaietan) gaur arratsaldean FITURen egingo den beste aurkezpenetako bat izango da. Bertan, Navarra Fishing Adventures enpresak Komunitatean jarduera hori burutzeko dauden aukera turistikoak emango ditu ezagutzera.

Eguna amaitzeko, Plazaola Turismo Partzuergoak ere aurkezpen bat egingo du, izan ere, 2014an, Plazaolako lehengo trenak egindako lehen ibilbidearen urteurrena ospatuko da. 20 urte beteko dira Partzuergoa sortu zenetik eta 600 urte Plazaolako meatzean lan egiten hasi zirenetik.

Galería de fotos



Publikoa Dolores Redondoren trilogian agertzen diren tokien bidea ikusten.



Carlos Erce eta Dolores Redondo, aurrean, bidea ikusten.